

Getxo >MEETING<



Urriak 6 Dibertsifikatzea edo espezializatzea

Azken saioa hausnarketa batek markatu du: dibertsifikatzea edo espezializatzea ez dira nahitaez kontrako gaiak.

Azken #GetxoMeeting-ean horretaz pentsatzen eman genuen denbora, eta ondorioak atera genituen:

- Espezializatzeak ez du esan nahi produktu edo zerbitzu bakarra eskainiko duzunik.
- Dibertsifikatzean, ez gara ari oso negozio desberdinak izateaz (autoen tailer bat eta bitxi-denda bat), lan-ildo desberdinetan aritzen den negozio berberaz baizik.

Batzuetan, hain zuzen ere, espezializatzen zarelako sortzen dira aukerak, zerbitzu edo produktu bat baino gehiago bihurtuko direnak; aditua bihurtzen zarelako lortzen duzu informazio baliagarria zure bezeroek behar dutenaz.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus



<https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



Ariketa bat egin genuen, eta parte-hartzaileek bi zutabe sortu zituzten. Batean idatzi zuten zer esan nahi duen espezializazioan kokatzeak eta bestean zer dakarren dibertsifikazioaren alde egiteak.

Gakoa da bi agertoki horiek irudikatzea eta ulertzea bezero desberdinak iritsiko zaizkizula, eta zure sare sozialak eta estrategia osoa bi bide desberdinetatik joango direla.

- Espezializatzen bazara, esperientzia eta ezagutzak erakutsi behar dituzu, horrexek bereizten zaitu eta.
- Dibertsifikatzen bazara, kaudimena eta konfiantza erakutsi behar dituzu, bezeroek zu zaituztelako arazo askoren konponbide.

Esan bezala, ez dira kontraerriak, baina bai ikuspegi desberdinak:

- Espezialista zaren aldetik, espero da zu prestatzea eta egunean egotea, baita lankidetzaren sare bat izatea ere zure espezialitatekoak ez diren lanak egin ditzan.
- Enpresa zaren aldetik, erakutsi behar duzu baliabideak dituzula erronka berriei aurre egiteko, hainbat irtenbide emanez.

Dena den, egiten duzuna egiten duzula, Ekonomia Sustapeneko enpresentzako zerbitzuak lagundu ahal dizu estrategia hori lantzen.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:

